

YON ETXAIDE.—*Etxaide jauna* (Inazio Maria Etxaide Lizasoain injinadorearen bizitza, inguru-giroa eta lanak). Erein. Donostia, 1986.

Liburu mardula eskaintzen digu Yon Etxaidek bere aita zenaren biografiaz. Baina, bere mardultasunagatik ez pentsa aspergarria denik, zeren mende erdi bateko historia jakingarri baten edukia bai du.

Gure mende honen lehen parteko historian pertsonaje gogoangarria zaigu Inazio Maria Etxaide. Liburuaren lehen hiru orrialdeak ikusi baizik ez dugu, zeinetan ematen diren gizon langile eta jakitunaren bizitzako zertzelada nagusiak. Diputazioan injinadore sartzeaz (1909) zer ikusirik aski izan zuen Gipuzkoan lehen telefonoak jartzeaz, automatikoa sortzeaz (1926) eta bere zuzendaritzan irauteaz telefonoa probintziarena zen artean. “Compañía Telefónica Nacional”ak Ministroaren aginduz bereganatu arte (1949) hor eman bai zituen bere urterik hoberenak. Zenbait lan idatzi zituen gai hortaz, beren artean euskarazko liburu bat ere bai: *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929). Euskal adituz eta joskeraz anitz liburu egin zituen. 1942an euskaltzain izendatua izan zen J.K. Gerraren hutsartea betetzeko. 1951.etik 1962an hil arte Euskaltzainburu izana zen.

Sarrerako zerrenda hortan ez badakar ere, 1954an Jose Maria Caballero Arzuaga Diputazioko lehendakariak Seminario “Julio de Urquijo” sortzeaz bere zuzendari izendatu zuen (Ikus: *El Seminario Julio de Urquijo. Antecedentes y Constitución*. San Sebastián, 1955). Oroi aurreko urtean (1953) lehen aldiz argitaratu zela *Egan* euskara

hutsean eta hurrengotik (1954) Urkixo Mintegiaren ardurapean. Beste zenbait xehetasun ikus 1954. urteko 5-6. alearen atarikoan 5-7. orrialdeetan.

Idez integrista zen eta kausa horren emaitzetan ere lanik aski egina zen. Beren agerkari zen *La Cruz*-en entzutea banuen, haurtzarotik. Garai haietan kalez-kale deihadarka saltzen ziren egunkari eta astekariak bazituzten beren izenez gainera bestelako deitura edo izenorderik ere eibartar ezkertiarren artean: “El Diario Vasco, egi guti eta gezur asko”; “La Cruz, elizako kandelari egiok putz”. Baina integrismoaz ezer guti nekien liburu hau irakurri artio. Zer zenaren irudia A. Campionez idatzitakoak zerbait ematen digu, liburuaren 387. orrialdean: “Campión, jakitun izatez gainera, gizon zuzen eta jarraikor bat da. Agian, norbaitek, gure esanari zer esanik aterako dio. Campión jauna, esango dute, integrista izan zen, gero “nazionalista”, eta nazionalismuan etzuen jakin izan partiduaren erakuspidetara makurtzen. Ez dugu uste guztihotan jarraikortasunari huts egiten dionik. Campión jauna, katoliku bikaña baita, integrista izan zen eta Eliza Katolikua dotriña osotasunera zeharo atxikia da. Campión jaunak aberri-prolemak estudiantu zituenean, nazionalista egin zen; baiña, integrismuaren eta nazionalismuaren artean, ideiei dagokiotenetan, eztago funtsezko alkar ezin etorririk. Campión jauna ez baldin ba’da makurtu Arana-Goiri’ren partiduerakuspidera, horretan ere eztago jarraikortasun hutsik, alderantziz baizik: irizpide aldagaitz bat. Norbaitek iritzi diezaioke, noski, oker dabillega, baiñan ez zintzotasun gabe dabilenik”.

Liburuaren erdian, bigarren zatia hasteaz euskarazko eta gaztelerazko bertsoz agertzen du ideia hortaz zuen sentipena.

Kapitulu nagusiak ordea, honela banatzen dira: Aitaz, Aitak; “La Cruz”eko idazlan ideologikuen muiña (1929-1936), Lizunkeriaz, Politikaz, Kristau gogoz, Euskalerriaz, Liburuxka integristen muiña.

Euskal Herriko pertsonaia askotaz behar genituzke era hontako biografiak. Historiaren osagarri ez ezik literaturaren aberasgarri baitira.

*J.S.M.*